

PuLunPe

154. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



Olerkiak sortu zuen lurra
lurrak sortu zuen ura
urak sortu zuen zura
zurak sortu zuen hostoa
hostoak sortu zuen haizea
haizeak sortu zuen karnaba
karnabak sortu zuen olerkia

olerkiak hil zuen lurra
lurrak hil zuen ura
urak hil zuen zura
zurak hil zuen hostoa
hostoak hil zuen haizea
haizeak hil zuen karnaba
karnabak hil zuen olerkia



Olerkia: Sarrionaindia
Argazkia: Txetxu Biguri

Asun Uriz, Leazkueko **banatzailea**



“Ailegatu ginenean
munduko herri
politena iruditu
zitzagun”

Herrietako etxe handi horiek lan amaigabea dute, ongi dakizuen bezala. Etxeko hesia konpontzen zegoela ailegatu gara Asun elkarrizketatzera. 1996. urtean semearekin batera ailegatu ziren. “Muru Artederretakoa dugu aita eta Lurrari maitasuna txikitatik erakutsi zidan”. Mikel semeak 18 urte bete zituenean erabaki zuten hiria utzi eta erosi zuten ukulua gutxika-gutxika zaharberitzea. Serioski egin zuten lana, gaur egun etxe dotorea baitute. “Ailegatu ginenean munduko herri politena iruditu zitzagun”. Ez zaio arrazoirik falta, ikusgarria baita herri horretara ailegatzeko egin behar diren azken kilometroak.

“Oraindik etxea bukatu ez badugu ere, izugarritzko lana egin dugu, horrexegatik baloratzen dugu gehiago herriak kontzejua mantentzea”. Herri txikia da Leazkue, 6 etxe besterik ez baititu. Pulunpe banatzeak, ez dio denbora gehiegi hartzen: “Lehen ere Egozkuen banatzen nuen baina geroago haien artean antolatzen dira”.

Kontzejua galtzeko zorian dago herria eta kezkatu-rik daude oso. “Zonaldean ez da orain arte kontze-
jurik galdu baina beldur gara nolabait erabaki ahal-
mena galtzea eta urrunetik agintzea herrian egin
behar diren eguneroko kontuei buruz”.

Ez dute argi zer galduko litzatekeen baina argi dute halako kontuak hobe “eta azkarrago” kon-
pontzen direla herrikoen artean. Hamasei biztanle
izatea da kontzejua mantentzeko ezinbesteko bal-
dintza, eta lortu dute eroldan falta zen jendea be-
rreskuratzea, nahiz eta epaitegietan prozesua ha-
sia egon: “Helegiteak aurkeztu genituen eta orain
zain gaude”.

Kontzejuko alkateak esan zigun administra-
zioak, teoriar, erantzuteko epea bukatu dela, silen-
cio administratiboari esker arazorik gabe aurrera
egingo dugula, baina ez gara fido”.

Guraizeak berriro hartu eta lasai-lasai utzi dugu
Asun lanean.

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi,
Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu,
Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzenoi, etab...
Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Azala: Aritz Gorostiaga

Koordinatzaileak: Lur Gil Rey eta Iosu Martinez Urdaci.

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

2016ko UZTAILAREN 6AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.





SANFERMINETAN, JOAN ZAITEZ IRUÑERA AUTOBUSEZ!

IRUÑETIK IRTEERA ORDUTEGIA:

01:00H. (EGUNERO, UZTAILAREN 7-9-10-11)

06:00H. (EGUNERO UZTAILAREN 7TIK 14RA)

09:30H. EGUNERO UZTAILAREN 6TIK 14RA)

13:00H. (ASTELEHENETIK OSTIRALERA BAKARRIK, UZTAILAREN 6-7-8-11-12-13-14)

15:20H. (EGUNERO UZTAILAREN 6TIK 14RA)

19:40H. (EGUNERO UZTAILAREN 6TIK 14RA)

IBILBIDEA:

IRUÑEA – ORIKAIN – SORAUREN – OLABE – ENDERITZ – OSTITZ – ZIAURRITZ – RIPA – LATASA – GOLF – GERENDAIN – ZENOTZ – IRAIZOTZ – ALKOTZ – ARRAITZ – LARRAINTZAR – AUZA – ELTZABURU – SUARBEKO BIDEGURUTZEA – LIZASO – LATASA – RIPA – ZIAURRITZ – OSTTIZ – ENDE- RITZ – OLABE – SORAUREN – ORIKAIN – IRUÑEA

ORGIKO UDAKO ORDUTEGIA

BEROA IRISTEAREKIN BATERA ORGIN ERE BISITARI KOPURU HANDIAGO JASOTZEN HASI GARA.

UZTAILEKO ASTEBURUETAN ETA JAI-EGUNETAN HAN AURKITUKO GAITUZUE, ETA ABUZTUAN EGUNERO.

JENDEARENDAKO ZERBITZUA APARKALEKUKO ETXOLAN EMATEN DUGU, ETA ORDAINTZEA DERRIGORREZKO DA ORDUTEGI IREKIAN SOILIK GOIZEKO 10:00ETATIK 14:00ETARA.

BESTE ORDUTEGIETAN SARTZEA LIBREA DA.

GOGORARAZI NAHI DIZUEGU SUA EGITEN AHAL DELA BETIERE HORRETARAKO EZARRITA DAUDEN LEKUETAN ETA SUA ITZALI BEHAR DELA ERABILI ONDOREN.

URA ZENTZUZ ERABILI, ZARATAK SAIHESTU ETA ZABORRA HORRETARAKO DAUDEN EDUKIONTZI DESBERDINETAN UTZI BEHAR DUZUE. ERABILTZAILE GUZTIEN ERANTZUKIZUNA DA.



IKUSI AMETZA.EUS WEBGUNEAN XALOA TELEBISTAREN BIDEOA

euskaraz
bizi
nahi dut

NAFARROAK 07.321 FAMILIATAN EZ DAGO DIRU-ITURRI FINKORIK

LANIK GABE DAUDE ETXE BEREAN BIZI DIREN PERTSONAK, EZ DAGO TARTEAN PENTSIODUNIK EZ ETA LANGABEZIAGATIK JASOTZEN DEN LAGUNTZA EDO PRESTAZIOAREN BAT JASOTZEN DUENIK ERE. HALA JASO DU GCOOK TXOSTEN BATEAN.



PULUNPE 154



Basaburua marka, jaiotzear

Basaburuko produktu eta jarduera ekonomikoei batasuna eta bultzada emanen dien marka propioa izanen dute aurrerantzean, Basaburua marka. Udaleko Garapen batzordea aspalditik lantzen ari zen gaia da hau, eta datozen hilabeteetan jaioko da ofizialki marka berri hau. Bitartean aktibitate ekonomikoen erregistro lanetan eta Basaburuko gida bat egiteko lanetan dabilta.



Orain arteko ibilbidea

1. GARAPEN BATZORDEAREN LANA

Oso zaharra da egitasmo hau Basaburuko udaleko garapen batzordean, bere hasieratik bertik zeukaten buruan halako zerbait egitea. Bi lan

ildo izan dituzte orain arte: Basaburuko identitate komuna lantzea eta bertako produktu eta aktibitate ekonomikoen kontsumoa bultzatzea.

2. BASABURUKO KARTELAK

Garapen batzordearen lehenengo ildoari dago-kionez, duela bizpahiru urte Basaburuko sarretan bailarako kartelak jarri zituzten. Irudi bat sortzeko lehiaketa ere egin zuten, baina azkenean lehendik zegoen ereduari eutsi zioten, Basaburuko eguna iragarri izan duen marrazkiari hain zuzen ere. Irudi hori oso errotuta dago gure artean, eta kanpora begira ere irudirik erreferentzialena da.

3. NEGOZIO BATZUEN ESKAERAK

Orain arte, Basaburuko negozio batzuek, jatetxe eta ostatuek bereziki, errepidean haien seinaleak jartzea eskatu izan dute. Batzuek badute jada, beste batzuek ez. Udalak, Basaburuko markaren bidez bideratzea erabaki du, honela, negozio eta aktibitate ekonomiko horiek Basaburuko logoa erabiliz kartelak jartzeko aukera izanen dute, hau da, Basaburuko markaren proiektuan murgilduz edo behintzat marka horren parte izanik.

4. ILDOEN UZTARKETA

Identitatearen lanketa eta bertako produktu eta aktibitateak bultzatzea, bi lan ildo hauek elkarrekin lantzeko hautua hartu dute. Kanpaina bat baino gehiago, norabide berri bat hartuko dute, eta Basaburuko marka sortuz, bertako jarduera ekonomiko guztien erregistro bat eta horrekin

batera gida publiko bat egingen dira. Gida hori inprimatutako liburuxketan aterako dute, baina baita modu digitalean, gero interneten, Basaburuko webgunean ikusgai egon dadin.

Basaburuko gida

1. ZER ESKAINTZA DUGU GUREAN?

Galdera horri erantzutea da gidaren helburu nagusia. Guk ere ez dakigu zeintzuk diren bailaran ditugun jarduera ekonomikoak, produktuak, zerbitzuak... Horregatik, guzti guztiak gidan sartzeko asmoa dago: eraikuntza lanak, iturginak, produktoreak, ostalariak eta abar.

2. BASABURUKO ESKAINTZAREN BATASUNA.

Marka bera, logo bera izanen dute aktibitate ekonomiko guztiek. Kanpora, turismora begira garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa bailarako biztanleei begira. Turistek ez baitute iturginik behar, adibidez. Gidak ere eskaintzak ordenatu egingen ditu, eta biztanle guztiendako errazago izanen da zerbitzuren baten beharra dutenean.

Eta eskaintza asko ezagutarazi egingen ditu, askotan ez baitakigu ondoko biztanleak edozein lanetan laguntzen ahal diguten.

3. LOGOAREN ZABALPENA

Basaburuko marka logoak irudikatuko du. Horretarako, logoaren zabalpen kanpaina egingen da. Hainbat produktu aterako ditu udalak logoarekin, ostatuetan eta beste hainbat lekutan izateko.

4. GIDA ETA MARKA, ZEIN ONDORIO?

Turismoa lagunduko du, baina bertako biztan-

leendako onurak izatea da helburu nagusia. Bertan kontsumitzeko kontzientzia hartzea, bertako produktu eta zerbitzuak kontsumitzea, hori da helburua.

Zertarako? Gure herrien biziraupenaren ardatza bertan lan egin ahal izatea da, proiektuak garatu ahal izatea, eta horretarako gertuko produktioa eta kontsumoa bultzatzea ezinbestekoa da.

Jarduera ekonomikoen egoera

Asko aldatu dira Basaburuko aktibitate ekonomikoak, ekonomiaren egoera bera ere aldatu den era berean. Kanpora begirako aktibitate gehiago zeuden lehen agian, orain gertutasuna, ekonomia lokala eta jasangarritasuna aktibitate askoren ardatzak dira. Gidak aktibitate berriak zein aspalditik ere ditugunak erakusten lagunduko duela ematen du.

Turismoaren egoera

Turismoa bultzatzea ez da lehentasuna, baina honetarako ere laguntza ekarriko du gidak. Pixkanaka gora doan kontua da turismoarena, eta turismoari begirako aktibitateak ere sortzen ari dira. Hala ere, herrietako ostatuen egoera ez da oso ona; Beruete, Aizarotz eta Oroketako ostatuak jabe askoren eskutatik pasa dira, eta eze-gonkortasun egoeran izan dira. Ematen du krisi hori gainditzeko bidean ari direla orain. Gainera, uda hastearekin batera nabaritzen da jende asko etortzen ari dela Basaburura.





Belateko tunelen **lanak**, bost puntutan

Ekainaren hasieran egunkarietan irakurri ahal izan genuen Nafarroako 31 udalerrik salatzen zutela Belate eta Almandozko tunelen “arriskua eta segurtasun gabezia”. Udal horien artean, Odieta, Ultzama, Anue, Lantz eta Basaburukoak zeuden. Egun batzuk geroago Nafarroako Gobernuak iragarri zuen 2018. urtean eraikiko direla tunelekiko galería paralelo batzuk. Ikus ditzagun puntuz puntu.



Galeriak

Husteko galeriak tunelak dira, orain dau-denekin paraleloan doazenak. Haien artean komunikaturik egoten dira konexio aho batzuen bitartez, baina sekzio txikiagoa dute anbulantziak eta suhiltzaileen furgoi txikiak sartzeko modukoak. Haien funtzio nagusia izaten da istripu edo suterik gertatuz gero ahalik eta lasterren hustea tunel barruan harrapatuturik gelditu diren pertsonak.

Zundaketak

Gaur egun ingurumeneko baimena tramitatzen ari da, heldu den urtean zundaketak hasteko asmoarekin. Zundaketak milioi bat euro inguruko kostua du.

Aurrekontua

Aurrekontua oraindik zehaztu ez bada ere, aurreikuspenak 20 milioiko aurrekontu batean kokatzen gaitu, baina 30 milioiak ere gainditzen ahal ditu.

reikuspenak 20 milioiko aurrekontu batean kokatzen gaitu, baina 30 milioiak ere gainditzen ahal ditu.


Epeak

Herrilan Departamentutik onartu dutenez, obrak hasteko gutxienez 2018. urtera itxoin beharko da, baina nekez bukatu ahalko dira 2019ko apirila baino lehen. Orduan Europako segurtasunari buruzko legedia bete beharko da.

Errekorra

N-121-A (Iruñea-Behobia) errepideak iaz errekor historiko bat izan zuen, eguneko 9.494 ibilgailu pasatu baitziren handik, aurreko urtetan baino 450 ibilgailu (%+4,8) gehiago, horietatik 2.570 pisu handiko ibilgailuak; horiek ere errepide horretako maximoa markatu zuten (%+9,8).

Bailaraz-bailara, festaz-festa!



Uda eta festak. Binomio bereizezina. Herrietako festen denboraldia hasi da, eta aurretik ditugunak begi-bistan izanda, igaro direnak ere gogoan izan beharko.

Eta ekainak eman du berea festei dagokienean. Aizarotz, Arrarats, Olague eta Ostizko festak izan dira jada, beste batzuen artean. Zerbait nabarmentzekotan, Aizarozko txupinazoa bereiziko genuke. Kurdistantik etorritako errefuxiatu poli-

tiko batek, Ali Cam-ek (aldizkari honetan elkarriketa egin diogu) bota zuen txupinazoa. Imozko eguna ere izan zen uztailaren 2an, Latasan da goen Imozko frontoian.

Iazko musikari protagonistak Mexikortxos, Los Andus, Anitaren Bilobak eta Los Tenampas izan ziren gure festetan. Aurten ere gertutik jarraituko ditugu festak ikusteko lau talde hauek rankingaren gorenean jarraitzen duten.

GOZATU ZUEN FESTAK!



Iritsi zaio bizitza **berria** Santurberi

Aspalditik iragartzen ari ginen, baina iritsi zaio jada bizitza kultural berria Santurbeko basilizari. “Ilargi beteari kantuar” programaren baitan, ilargi bete guztietan ekitaldiren bat egitekoak dira, eta lehenengoa egin zuten jada.



Santurbeko 2011 urteko irudia

Ekainaren 17an izan zen, eta jende ugari gerturatu zen ikuskizuna ikustera. Elizaren aldrean pantaila bat jaitsi eta elizkizunetarako gunea kulturarako gunek bihurtzen da, eta hala egin zuten. Apaizaren ordezkari dantzari eta kantariak igo ziren oholtza bihurtutako aldarera. Atezko dantza taldeko kideak aritu ziren dantzan kanpoko haritzaren inguruan, eta oso polita izan zen ikuskizuna, dantzariendako eurendako eta baita ikusleendako, jakina.

Barrura sartu ziren ondoren, eta Amati abesbatzak jarri zituen doinuak. Ederra izan zen emanaldi hau ere, guztia. Ultzama aldeko mankomunitatearen ostiral kulturalen egitarauan txertaturik. Ez da, ordea, emanaldi bakarra izanen, uda ekitaldiz betea baitago Santurben, ilargi betea ateratzen den aldiro:

-Uztaileko ilargi betea: uztailak 24, igandea 12:00-22:00: “Bertako doinuak”: Egun osoko omenaldia bertako kultura eta Odietako herrien bizimoduari: argazki erakusketa, proiektzioak, lanbide tradizionalen erakusketa, txalaparta, bertsolariak...

-Abuztuko ilargi betea: abuztuak 21, igandea 18:30-22:00: “Musika aniztasuna”: Baseliza barnean zein kanpoan kontzertu akustikoak egonen dira: Lehio-tikan, Beltxaren (Ana Telletxea eta Lina Anduela), eta beste talde bat

-Iraileko ilargi betea: irailak 9, ostirala 18:30-22:00 (Mankomunitateko ostiral kulturalen baitan): “Astronomia eta musika behaketa”: Girgillaoko behatzikoko kideek emandako hitzaldia eta haiek ekarriko dituzten teleskopioekin behaketa, kantu harmonikoarekin girotuta.

Orgi **basoaren** “20.” urteurrena

Lasai, irakurle maitea, gure basorik ezagunena ez zen duela 20 urte jaio, edota ez zuten duela bi hamarkada eraiki, kontua da uztail honetan ospatuko dela basoa babestu zuteneko 20. urteurrena. Uztailaren 30 eta 31n zenbait ekimen prestatu dituzte.

Urtebetetze data ekainaren 24an izan zen, zehatz-mehatz. Duela 20 urteko egun horretan, Nafarroako Gobernuaren eta Lizasoko Kontzejuko ordezkariak 30 urterako akordioa sinatu zuten basoa babesteko. Garai hura arte, gutxika-gutxika abeltzaintzak eta nekazaritzak basoa hondatzen ari ziren.

Basoa babestua geratu zen “Aisialdirako Natur gune” gisa: natura babesten zen bitartean, atea irekitzen zen errespetuzko zenbait ekimenetarako.

UZTAILAREN 30, LARUNBATA-

19:00 Hariztian barna pasieran Joaquín Araujorekin. “Basoen balioa”.

UZTAILAREN 31, IGANDEA

10:00etatik 15:00etara

• Orgiko oroitzapen eta desioen erakusketa
• Kontzertua eta olerkiak haritzen azpian: Txari Elea eta Joaquín Araujo

• Basoaren azoka: zuraren artisautza, narrasti, anfibio, landare, ziza erakusketa etaazienda Joaquín Araujo eta Juan Goñiren azken liburuen aurkezpena. Horrez gain, tokiko gastronomiaz gozatuko gara: artopilak, ezti, sagardoa, gazta...





Lantzen ere euskararen alde!



Urteroko zita Lantzen euskarra sustatzeko. Ekaineko Pulunpen Luis Mariñelarena eta Miren Urriza aldizkariaren banatzaileekin euskararen inguruan solasean aritu ginen. Aurrerapausoak, atzera pausoak, kezkak, zorionak eta abar... Bada, oraingoan ospatzeko eguna izan zen, ospatzekoa eta aurrera begira jartzekoa, bai-

na Lantz oraindik ere euskalduna dela aldarrikatzekoa.

Bereziki haurrei begirako egitarauarekin, haiek baitira herriaren etorkizuna, baina adin guztietako biztanleek gozatzeko eguna. Ostiralean, euskararen egunaren bezperan, Lanzko haurrek aurten go euskararen eguneko marrazkia margotu zuten, eta horrek eman

zient hasiera hurrengo eguneko ospakizunei.

Esango genuke haurtuta ikaragarria egon dela Lantzen euskararen jakintza eta erabilerari dagokionean. Bizpahiru agure baino ez dira geratzen euskaraz dakitenak. Baina txanponaren beste aldean ere badago, haur gehienek dakite euskaraz, eta, Luis Mariñelarenak zioen bezala, Lantzen

gehiago aritzen dira euskaraz Larraintzarko ikastetxean baino.

Eta tarteko guztiak, erdaldunak edo euskaldun berriak. AEK-k lan polita egin du urtez urte helduak euskalduntzeko, eta horri esker ere hasi ziren Txondor eguna ospatzen, egungo euskararen egunaren aitzindaria. Ordutik hona igaro dira ia urtero euskararen aldeko jairen bat eginez. Beraz, euskararen etorkizuna haurrengan jarria, aurrera begira daude Lanzko biztanleak. Eta, garrantzitsuena, haurrek ere ederki gozatu zuten egunaz!

Iritsi da igerileku denboraldia

Ikasturtea amaitu eta igerilekuen denboraldia hasi. Ezinbestean batera doazen bi kontu dira, eta aurten ere, eta bereziki haur eta gaztetxoek gozatzen ari diren zerbait da.

Ekainaren 13an ireki zituzten igerilekuen atea, ekintzaz beteriko asteburu baten ondoren (Larraintzarko ikastetxearen 50. urteurrena, Anueko krossa, Mamiaren eguna...). Gainera, lehenengo egunean bertan beteta zeuden jada. Larraintzarko ikastetxeko DBHko ikasleak joan ziren bertara, ikasturtearen azken-aurreko egunean.

Eguraldiak, dena den, ez zuen gehiegi lagundu lehenengo egun horietan, baina gutxika ari gara udako giroan sartzen bete-betean. Bazkideetak ari

dira igotzen ere. Lehenengo egunean 60 pertsona ziren bazkideetakoak, eta hurrengo egunean azkar igotzen joan da kopurua. Asmoa, 400 bazkide baino gehiago izatea.

Langile berriak ere baditugu bertan, harrerakoa, garbiketakoa, monitoreak, sorosleak, mantentze lanekoa... Igerilekuak ireki zituztenean baina, ez zuten oraindik igeriketa monitorerik, eta ero bezala aritu behar izan ziren baten bat aurkitzeko.

Igerilekuko ostalua ere irekita dago, iazko neskek hartu dute, eta beraz, martxa bizian doa dena!



Anueko Arte eszenikoen 2. topaketa ospatu zen

Olagueko plazan zen hitzordua, eguna, ekainaren 19a. Aldia, bigarrena, lehenengoa iazkoa izan baitzen. Eguraldia, eguzkitsua hasieran eta gero lainotua. Publikoa, "oso gustura".



zeko pailazoaren papera egiten, "oso-oso pailazo tuntunarena egiten", komentatu zigun Harkaitzek, artista mexikarra.

Aipatu beharra dago Abraham Alzate, artista mexikarrak, uda Europamango duela jaialdiz jaialdi: "Busker deitutako sarearen bidez, kale artisten jaialdiak antolatzen dira hiri eta herri askotan".

Balorazioa umoretsua izan da antolatzaileena, "ez baikara korrika atera behar izan". Jaialdiaren etorkizuna badirudi bermatuta dagoela, Anueko Udalarekin biltzeko hitz egin dutelako, eta bestela, DIARIO DE NAVARRAREN laguntza dute, haiek argitaratu baitzuten jaialdiaren hirugarren edizioa egin zela. Zorte on!

Halako datu zapa-rrada baten ondoren, balantze subjektiboa egitea ez dago gaizki: bigarren aldiz gurean oso jaialdi berezia antolatu zen; arte eszenikoak uztartzen dituenak: kale antzerkia eta zirku ikuskizunak gurera hurbiltzen dituenak.

Anueko bailaran esfortzu handiz antolatzen dute eta aurten, berriro ere, hiru konpainia des-

berdin ekarri dituzte, bakoitza eremu batekoa: maila lokalean Latasako "Zirkoloretsua" konpainia, estatu mailan "Máximo Óptimo" eta nazioarteko mailan, Mexikotik, "El rompe records". Plaza leporaino beteta zegoen, "Pulunpe ailegatzen den bailara guztietako jendeaz".

Imozko Latasan bizi den Harkaitzek hasiera eman zion jaialdiari arratsaldeko bost eta er-

diak aldera, "Lapurretak" ikuskizunarekin. Latasakoak euskara eta gaztelania nahastu zituen haren ikuskizunean eta bitxikeria gisa aipatzea, euskara ulertzen ez zuten pertsona batzuei albokoek euskaratzen ziotela.

Madrilatik zetorren "Máximo Óptimo" artistak bigarrena izan zen; antolakuntzatik adierazi digutenez berak eramanean zuen jaialdiaren publikoaren saria. Bukat-

Plazaola eta Bertizko bide berdeak lotuko dituzte

Bizikleta zaleak albiste on bat jaso dute azken asteetan: bi bide "berde" elkartzeko lanak egingo dituzte. Bertizko bidea eta Imoztik doan Plazaola bidea lotzeko akordioa sinatu zuten ekainaren erdialdean.



Ederbide" da proiektuaren izena eta Iruñea-Donostia-Baiona lotura berdearen zati nafarra egokitu eta sustatzea dute helburu nagusia. Horretaz gain,

Imozko alkate den Josean Iturraldek "mugikortasuna sustatzeko eta herri artean mugitzeko" ere balioko duela azaldu zigun. Ederbide honen barnean Bera eta Iruñea arteko ibilbide berriak sortuko dira gaur egungoa halako bi baino gehiago izango da osotara.

Hasiera batean, Bidasako bide berdeak Plazaolakoarekin bat egingo du eta, ondoren, hura luzatu egingo du hegoaldeko Iruñeraino. Ekainaren 10ean egin zuten sinadura ekitaldia partaide guztiek, haien artean, Josean Iturralde: "Bertiz eta Plazaolako bideak bilduko dira, Basaburutik barna, Oitz eta Doneztebetik. Urritzako Benteatik Imotza pasako da".

Esan beharra dago Eurovelo proiektuak orain egin dako lanak probestuko dituela. Proiektu honen bost bazkideek 2,7 milioi euro inbertitu beharko dituzte osotara. Horietatik, Nafarroako Gobernuak, 2,4 milioi eta Imotzek, 140.000 euro inguru.

Eskolako 50. urteurrenaren kronika

Larraitzarko eskolatik hurrengo testua bidali digute. Zorionak!

Guztiok genuen ekainaren 11 egutegian markatua. Izan ere, ikastetxearen jaialdia zen. Halere, aurtengo jaialdia berezia izango zen ioteetan eta beste momentu txiki batzuetan gertatu izan zen bezala. Aurten ikastetxearen 50. urteurrena dela eta, ikasturte amaierako festa ere desberdina izango zen!



Goizeko hamarretan lehenengo mugimendua sumatzen hasi ziren. Ateak jada irekita zeuden, baten bat plaka berriari hainbat argazki egiten ari zen, Aralar musika eskolako ikasleak eta irakaslea ere hortik zebiltzan instrumentuekin gora eta behera...

11:15ean eguna berotzen hasteko kontzertu batez disfrutatu genuen. A ze ilusioa! Eta zeinen ongi jo zuten!

Poliki-poliki jendea hasi zen etortzen eta jantokira sartzen, eguerdian hasiera ofiziala izango zelako.

Ikastetxeko zuzendaria ez zen bakarrik egon jantokiko eszenatokian: berarekin batera hezkuntza kontseilaria, ikastetxeko ikuskaria, guraso elkarteko ordezkaria eta bailaretako alkate edota zinegotziak igo ziren.

Zuzendariak zentroaren historia kontatu eta gero, aurrezku batez gozatzeko aukera izan genuen. Ondoren, "lip-dub" bideoaren aurkezpena. Ileak tente eta ezin arnasa hartu gelditu ginen asko: eskerrik asko!

12:30ean ikastetxeko bisita gidatua egin zen eta, ordu berean, kirol-

degian, zunba eta euskal dantzen ikuskizunak hasi ziren.

Hori gertatzen zen bitartean txikiak puzgarrietan saltoka ari ziren eta beste batzuk Gizarte Zentroan argazki erakusketa ikustera Joan ziren.

Denbora pasa ahala, janari usain gozoa zabaltzen hasi zen. Zubillaga enpresakoek paelak prestatzen ari ziren!

14:00etan jantokiko ateak berriz ireki, bazkarirako txartelak jaso eta bazkaltzera eseri ginen. Oturuntza ederra izan zen. Janaria oso goxoa, bai, baina giroa... ezin hobea!

16.00etan musika hasi zen jantokian eta hor gelditu ginen mintzatzzen edo abesten.

Txikiak, berriz, hainbat jolas zituzten kanpoaldean Dindaiakoek prestatutakoak.

18:00ak aldera biltzen eta garbitzen hasi ginen. Zenbat esku egon ziren lan horietan!! Dida batean dena txukun utzi eta zapore gozoa ahoan bakoitza bere herriara, antzerkira... joan zen.

Eta hurrengo ikasturtean? Hurrengo ikasturtean urteurrenik ez, baina ongi pasatzeko go-goa ere izango dugu!

Mamiaren egunaren balorazio "bikaina"



Antolakuntzarekin elkartu ginen eta Batzordea oso ongi funtzionatu zuela esan ziguten: "gozada bat izan da". Hamar bat pertsona elkartu dira Mamiaren 6. eguna antolatzeko batzordean, nahiz eta egun horretan hamarnaka pertsona lagundu.

Eguna "oso ongi" joan zen, eta zerbait azpimarratzearen, megafoniaren erabilera aipatu nahi izan dute: "musikaren

bidez giroa sortzen lagundu" baitzuen eta baita abisuak mikrofono bidez helarazteko. Hurrengo edizioetara begira, pentsatu dute ordutegia aldatzea: planteatzen ari dira eguerdi aldera hasia eta bazkalorduan bukatzea. Saltzaileak ere "inoiz baino" gehiago saldu omen zuten. Berrikuntzetako bat txikiendako sukaldaritza ikastaro-ikuskizuna eskaini zen, eta jende andaina bildu zen.

Marihuana landaketa handi bat harrapatu du Guardia Zibilak



Udako hilabeteak aurrera doazen heinean ez da arraroa halako albisteak ikustea. Landare honen bizi zikloa udarekin batera bukatzen da eta abuztu aldean han hemen aurkitzen ditu Poliziak. Baina kasu honetan gertatutakoa desberdina da oinarrian.

Basaburuko Abeltzaintza esplotazio ohi batean zegoen landaketa, eta hedabideei helarazitako informazioan, Guardia Zibilak "kontuan hartzeko" tamaina zuela aipatu zuen. 500 landare baino gehiago, poltsak eta kukuluak aurkitu zituzten eta baita ere etxe barruko ekoizpe-

nerako tresnak ere: argi eta haizeztapen sistemak eta lehortze lekuek. "kantitate handia ekoizten" zutela pentsatzen dute poliziek. Lehen aipatu bezala, kanpoaldean landatutako Marihuana urtean behin jasotzen da, baina etxe "barruko" landaketak, etengabeko uzta sistema berma lezake.

Marihuanaren legalizazioa geroz eta hurbilago dagoen kontua da aditu askoren ustez, eta Nafarroan erretzaile taldeak han hemen sortu dira. Gaur egun 50 talde pribatu inguru dago, non landare hau modu pribatuan erosi eta kontsumitzen dute inolako arazorik gabe.

Iritzia Merkatuan



Anjel Lertxundi
BERRIA egunkarian

Irudimenak alde ederrena librea izatea baitu, libertade osoz eramane ninduen atzo Gasteizko Santa Barbara merkatura, bere produktuen izen eta salneurriak euskaraz soilik emateagatik Udal ikuskari baten isun-mehatxua jaso zuen ortuzainaren azokara. Behin bertan, Udal ikuskari bihurtu ninduen nire irudimen dontsuak,

eta isun-mehatxuak banatzen hasi nintzen beren produktuen izen eta prezioak euskaraz ere ez zeuzkaten barazki-saltzaileei; begiratu nituen barazkien etiketak ere, eta Murtziatik, Valentziatik, Jertestik zetozen produktuen etxeak zerrendatu nituen etiketak euskaraz ere bidali ditza- ten agintzeko. Saltzaileen karpetetako paper eta

agiri ofizial guztiz gehienetako euskararen falta aipatu nuen. Aipatu nuen merkaturako iragarki eta afixetako hizkuntza- ren nolakoa ere. Begiratu nuen diru-kutxetako etiketena eta borrajak biltzeko erabiltzen dituzten egunkarietakoa...

Abail-abail eginda, nitaz erruki zedila eskatu nion irudimenari



Aurtengo jaioberriak eta haien gurasoak Aizarotzen Haurraren egunean

Udako lanak eskualdean

Urteko lan sasoirik garrantzitsuena izan ohi da askorendako. Gazte eta ez hain gazte askok denboraldi baterako lanak lortzen dituzte, batzuetan luzatzen direnak. Zonaldeko koadrila honekin hitz egin dugu haien lana eta bizitzari buruz.

SABINA ETA EDU, "ANITAREN BILOBAK" TALDEKO MUSIKARIAK:

"Aspaldidanik deitu digutenei lehentasuna ematen diegu"



Beltzuntzeko bi lehengusu hauek aspaldidanik ari dira musikaren munduan. 2010. urtean "Auskalo" taldea sortu zutenetik, hamarnaka emandaldi eskaini dituzte eskualdeko eta kanpoko beste herrietan. Uda honetan egutegi nahiko beteta dute, "ia-ia astebururo ditugu kontzertuak. Datak begirata beste batzuetan egon garen herriak dira gehien ditugunak, beti saiatzen baikara, egunak bat etortzen badira, lehentasuna ematen aspaldidanik deitu digutenei".

Haien denboraldi "altua" jada hasi da, ekainetik irailera baita: "Aurten Ultzama, Basaburua, Olo, Sakana, Erronkari, Deierrri, Zaraitzu, Esteribar, Berriobeiti, Zangoza eta Xulapain aldean ibiliko gara, pentsa..." Udako lehenengo kontzertuetako bat Aizarotzen izan zen: "Oso gustura ibili ginen bertan, oso giro ona sortu zen".

Anitaren Bilobak taldearen izena, haien amonari omenaldi txiki bat da, hala deitzen baita. 2014. urtearen bukaera hasi ziren abestiak prestatzen, esan bezala, Auskalo deitutako taldea desegin ondoren: "Duo bat osatzeko gogoanuen aspaldi", komentatzen digu Eduk, "eta Sabinak ere antzeko ideia zuela komentatu zidan, beraz, primeran!"

Taldearen errepertorioa anitza da oso, baina batez ere mantentzen dute herriko pestetan berbenek jo duten errepertorioa.

MIKEL PARDO, MENDI GIDARIA:

"Ikusi genuen eskualdean taldeentzako mendi zerbitzuetan lan aukera zegoela"



Naturaz eta inguruko paisaia ikusgarriez gozatu, errekek eta baso bakartiak zeharkatzen erlaxatu, begiratoki ederrak igo... Horrela hasten da Mikelek prestatutako afixa: "Ideia hau sortu zitzaigun ikusten genuelako eskualdean taldeentzako mendi zerbitzuetan lan aukera zegoela". Mikel Pardo Auzan bizi da duela urte batzuk eta, mendizalea izateaz gain, gidari ikasketak egin ditu.

Eskualdean bizi denez, bertako mendiak eta ibilbideak "primeran" ezagutzen ditu: "Edozein turistarik eskaini nahi diogu gure ezagutza: basoak eta mendiak gaineratik ezagutu ahal ditu jendeak, baina uste dugu bertako aditu batekin esperientzia askoz aberatsagoa lortu daitekeela, lekuaren bitxikeriak erakutsiz, istorioak kontatuz... esate baterako, trikuharriak erakusten.

Mikelek ibilbide itxi batzuk prestatu ditu, nahiz eta hamaika aldaketa egin ahal. Bukatzeko, Mikelek azpimarratu nahi izan digu, profil eta zalelasun guztiendako ibilbideak egin ahal dituela.

JAVI RAMOS, IGERILEKUKO SOROSLEA:

"Familia giro polita dugu hemen"



Goizeko hamaika eta erdiak aldera ailegatzen da Javi egunero eta egitekoak hasten ditu: "Robota atera, igerilekua txukundu eta dena prestatu". Etxean bezala sentitzen da Lizasokoa: "Oso gustura etortzen naiz, etxetik hurbil-hurbil nago eta igerilekura etortzen diren guztiak ezagutzen ditut".

Uztailarekin batera hasten dira igeriketa ikastaroak eta Javi nahiko lasai dago hirugarren urtea baita hemen lanean dagoela: "badaude egun batzuk oso lasaiak direnak, baina haurrekin oso erlazio ona dudanez, nigana etorri eta hitz eginen dugu tartetxo bat. Udako kontratua du Javik eta ikasturtean Informatika ikasten du Unibertsitatean. Udan irabazten duenarekin urtean dituen gastuak ordaintzeko erabiltzen ditu, "parrandak, adibidez" dio irribarre batekin.

LORENA BARBERENA, TABERNARIA ETA ZAINZAILEA:

"Gaur bertan hasiko naiz tabernan"



MARZEL ETA KATTALIN, KAAÑO ETXEAN LAGUNTZAILEAK:

"Elkartruke bat da: haiek ostatu ematen digute eta guk laguntzen diegu"



Haien Txekiako izenak Kaaño etxean euskaratu dizkiote. Bertan hurrengo bi hilabeteak pasako dituzte, "laguntzen, gozatzen eta burua erlaxatzen". Aste bete eman zuten Ostravatik (Txekiako ipar-ekialdean kokatua dagoen hiri handia) Bartzelonara bidean. "Auto-stopa eginez ailegatu ginen, oso ongi egin genuen bidea eta gure ideia iberiar penintsulako kostaldean egitea zen, baina azkenean beste zerbait desberdina bilatzea erabaki genuen.

Helpx.com webgunean Arrarasko eko-landetxearekin kontaktuan jarri eta bertara etorri dira: "Elkartruke bat da: haiek ostatu ematen digute eta gu laguntzen diegu". Martzelek, adibidez, informatika lanak egiten ditu eta "oso gustura" dagoela aipatu digu, "lan fisikoak egitea burua arintzen dit".

Kaaño etxeko bizitza lasaiatzeko gozatzen ari dira, baina baliteke Sanferminetara jaistea: "Baliteke gehiegizko aldaketa izatea", diote, kezka eta bitxikeria puntu batekin.

Urduri xamar" harrapatu dugu Lorena. Arrazoi osoz, ordu bete geroago hasiko baitzen Jauntzarasko Apeztegi berrin lanean. Herri berdinean aurkitu ditu lhabendar honek udako bi lan: bata tabernan eta bestea alboko etxe berrietan ume bikoite bat zaintzen.

Kultur ekimenak antolatzen diren gehienetan Lorenak ludoteka zerbitzuan lan egiten du eta horrek kontaktu asko eman dizkio: "Haur hauen ama aspaldi ludoteken bidez ezagutzen nuen eta proposatu zidan udan umeekin geratzeko amak lana aurkitu baitzuen". Oso gustura dago Lorena bi haurtxoeekin, "jostaketan daude egun guztia, sei eta hiru urte dituzte". Udako goizak oso emankorrak izan ohi dira: bizikletan ibili, futbolekin jolastu, paseoa...

Eta asteburuetan, Apeztegi berrira. Udan lan egingo du, momentuz, Lorenak, langile asko bezala denboraldi baterako lanak baitira.



Antonio Mutilba **Eguarats**, gizon ausarta

Gaur Anotzibarra joan gara, Odietako herri ederrera, etxe parrasta bat badu herri honek eta denak behin erregebidea izandakoaren bazterrean. Gehienik harritzen duena zera da, ia etxe guztiak bidearen azpiko ertzean daudela lerroz lerro. Etxe ederrak baina herria bere osotasunean da ikusgarria.



Antonio bere iloba batekin, Nairarekin.

Xiltonea edo Xiltorneko semea dugu Antonio, 74 urte eta bere emazte Rosarekin Xiltorneko maistartokia izandakoan bizi dena, *Mastalberri* jartzen du etxeko aurreko parretan.

Aita Urdanozkoa, Goñierrikoa, eta ama, berriz, Anotzibarkoa, *Xiltornekoa*. Andrea Ezkerekotxakoa, Arabakoa.

Ez nuen ezagutzen Antonio, telefonoz deitu diot, PULUNPETIK deitzen diodala, eta ea bera-ekin egon ahal naitekeen. Zerbait azaldu baina deus gutxi eta, baietz, baietz, etortzen al naizela. Harritu nau azalpen handirik eman gabe nola esan didan baietz. Goizean deitu eta berehala, arratsaldean, egon gara. Eta horrela ezagutu dut Antonio, jendekoia eta prestua.

Antonio, noiz eta non jaio zinen?

Xiltornean jaioa izaten naiz. Gero oso ttikia nintzenean gurasoak eta anai-arrebak azpiko aldeko etxe honetara etorri ginen, *Xiltorneko* maistartokira. 1942 urtean jaio nintzen, orain 74 urte ditut. Gu zortzi anai-arreba ginen.

Eta eskolara?

Eskolara? Hemen ez genuen eskolarik, Ziaurritza joaten ginen. Kilometro bat bertzerik ez dago. Bi herritako umeak Ziaurritzen biltzen ginen, 25 bat. Nik maistra bat bertzerik ez dut izan, Jacoba Zoko. Urtez aunditz egon zen, eta hemen jubilatu zen.

Eta apeza? Doktrina eta, non ikasten zenuten?

Apeza, aldrebes zen, Ziaurritz, Anotzibar eta

Anozko Parrokiak Don Jose Saldias, Sarasateko semeak eramaten zituen eta hemen bizitzen zen. Doktrina berarekin ikasi genuen, neguan-eta; al-dika, egunero izaten genuen. Berak bataiatu ninduen eta ezkondu ere bai.

Eskola utzi eta lanera

Bai, eskola goiz utzi nuen, oso goiz, ez dakit bada, 14 urteak bete baino frankoz ere lehenago.

Eta etxean zer izaten zenuten?

Laborea batez ere. Azienda ere izaten genuen, baina behiak mendira ateratzen genituen, larre-ra, eta lan handiena alorretan izaten genuen. Garia, patata, erremolatxa, artoa...beti jorran aritzen ginen. Garia behintzat aunditz. Pentsa, herrian bi trilladora ziren, gari aunditz egiten baitzen.

Lan neketsua.

Bai, hala zen, baina ni etxean ez nintzen aunditz egon. Ume aunditz ginen eta ni etxetik kanpo aunditz aritu nintzen. Mutil joan nintzen Eltsoko *Xarrajerorengana*. Eta gero Eltzaburuko harrobietan ere aritu nintzen, Diputazioarentzat.

Hala ere etxetik hurbil.

Bai, baina soldadu joan baino lehenago alde egin nuen Ultzamatik ere, Frantziara, hemen gutxi irabazten zela-eta. Han, mendian, aunditz gehiago irabazten genuen eta hiru urte egin nituen oihan lanetan, Pirinioetan, bai Leridako parean eta baita hemen Zuberoa aldean ere.

Trunko batek izterra harrapatu eta 20 egun egin nituen ospitalean, Maulen.

Hala ere ez zinen han gelditu.

Ez, gure etxeak su hartu zuen eta kiskali zen dena. Eta hona etorri beharra izan nuen, etxea berriz egiten laguntzera. Hemen bota nituen Frantzian irabazi sosak. Eta ia bukatuxe genuenean, soldadu joan beharra izan nuen, Melillara.

Soldadu Afrikara. Soldadutan ere izaten dira pasadizo ederrak.

Ez pentsa, hala esaten dute, soldadutan ongi pasatzeko arresto aunditz izan behar dela. Ba, ni ez ninduten inoiz arrestatu.

Etxeko nagusi

Zu muttikotan etxetik kanpo, mutiletan Frantzian eta soldadu ere etxetik urruti. Eta hala ere, zu etxerako.

Bai, Afrikatik etorri nintzenean, anaia zaharrena txofer zebilen. Eta, ez dakit zer pasatzen den, etxetik kanpo ibili garen umeok gurasoak gehiago maitatzen ditugun edo, eta ni gelditu nintzen.

Eta zu gelditu zinen Xiltorneko nagusi gustura.

Ez ezazula uste izan. Ni beti kanpoan eta ez nuen etxerako bokazio handirik, baina pentsatu nuen, nik hartzen ez badut, hutsik geldituko duk, etxalde hau bertan behera joanen duk, eta pena eman eta

aurrera atera behar nuela erabaki nuen.

Eta etxeari segida emateko ezkondu ere bai. Arabatik ekarri zenuen andrea.

Ja! ja! Bai, Rosa Ezkerekotxakoa da, baina ttikitatit Iturmendira etortzen zen izeba batzuen-gana. Iturmendin izaten zen gehienetan. Gero Ostizko Joaquina ostatura etorri zerbitzatzera eta hor ezagutu genuen elkar.

Eta hiru ume hazi dituzue.

Bai, bi mutiko eta gazteena neskatoa. Eta orain denak kanpoan dira, seme bat Elizondon eta bertze biak Iruñaldean. Bortz iloba ditugu. Asteburu eta udan beti hemen izaten dira.



Antonio bere emaztea den Rosa Ruiz de Azua Morenoren.

Zu oraindik mutikoa zinenean nekazalgoan aldaketa handia izan zen.

Bai, aldaketa pixkaka etorri zen. Esnea ateratzen hasi ginen eta laborea egitez utzi genuen. Azkenean esnea, ez zen bertzerik. Erabateko aldaketa. Hori joan den mendeko 50eko hamarkadan izan zen.

Zuek Mastalberrin bizi eta behiak Xiltorneko behitin.

Bai, *Xiltornea* oso-oso handia denez, tokia behar azienda edukitzeko eta han izan ditugu eta gu beti hemen bizi izan gara, nahiko etxe dugu hau, ez dugu handiagorik behar.

Zu beti nekazari, baina ez beti zure buru.

Hala da, bai. Ziaurritzko behi kooperatiban sartu nin-

tzen. Zer egin behar zenuen bada, bakarrik ere motz samar izaten da eta Ziaurritzko kooperatiban sartzea erabaki nuen eta bertan aritu nintzen, sozio.

Eta aldi hori ere bukatu zitzaizun.

Bai, eta nahi gabe. Behiei injekzio jartzen ari nintzen egun batean, paretaren kontra besoa harrapatu zidan eta min hartu nuen. Giharrak hautsiak ote nituen, eta sendatuko duk ba, sendatuko duk, baina sendatzen ez, indarrik hartzen ez. Mutuara joan, bai, bai, hau duk, baina sendatzen ez. Gero bertze mediku batera joan eta ezetz tendoia nuela hautsia. Eta berez txarra dena, denbora pasatzearekin zailago, eta horrela, zoritxarrez, lana utzi behar izan nuen, orduan hirurogei eta bi urte edo izanen nituen. Geroztik hemen nabil, jubilatutik, baratzea, etxeko lanak...pozik!

HIZTEGIA

PARRASTA: Multxoa

ERREGEBIDEA: Camino real.

ERTZA: Borde

JENDEKOIA: Sociable

LABOREA: garia, patata, erremolatxa, arbia...

(belarra, lastoa, alfalfa...horiek ez dira laboreak)

JUNE FERNANDEZ, BERDINTASUN KAZETARITZAN ADITUA:

“Hedabideok ardura itzela dugu berdintasuna sustatzen”

Bilbotar hau Esan Erran irratiara gonbidatu genuen Iruñean kazetaritza genero ikuspegitik lantzeko ikastaro bat eskaintzen ari baitzen. Pikara Magazine aldizkariko zuzendaria eta hainbat hedabideren kolaboratzailea, indarkeria matxista, albisteen tratamendua, eta hedabideen krisiari buruz hitz egin genuen berarekin.



Nola enfokatzen duzu eskaintzen ari zaren ikastaroa?

Nafarroako Berdintasun Institutuak lan saioa antolatu du eta bertako hedabideak gonbidatu ditu. Kazetaritza genero ikuspegitik lantzeko orduan, hamaika dira eginbeharrak. Bertan egon nintzen zenbait klabe eta hausnarketa egiten: hasteko gure barnera begiratu behar dugu eta esan “gure hedabideak nolakoak dira?”

Duela gutxi, ikerketa bat argitaratu zen: emakumeak hedabideen protagonisten %30 bakarrik direla esaten zuen., Biztanleriaren erdia bagara ere, ez gara agertzen. Agertzen diren adituen artean %9garabakarrik. Emakumeak oso gutxi agertzen gara eta agertzen garenean, gainera, biktimaren paperan izan ohi da.

Paperak eta rolak...

Konturatu behar gara zeinen garrantzitsua den emakumeak kirol, ekonomia eta politika bezalako sailetan agertzea. Pilar Lopez Diez antropologoak ikertu zuen zer roletan agertzen garen: biktima, ama, zaintzailea edo liraina izateagatik agertzen gara. Bizkaiko *El Correon* edota *El Mundo* egunkarien bertsio digitaletan egunero agertzen da emakume bat erdi biluzik; Irina Shaiyken jantzi erdi gardena edota norbaitek egutegi batean parte hartu duela.

Zer trataera ematen diote hedabideek biolentzia matxistari?

Guk azpimarratzen dugu indarkeria tratatzerako orduan tonua ez sentsazionalista izatea, “morbosoa” ez izatea. Gertakari isolatugisa agertu ordez, garrantzitsuagoa da azaltzea matxismoarekin duen erlazioa, haren testuinguru soziala edota zer ondorio eta zigor duen indarkeria horrek.

Beste ikerlari batek imitazio efektua aipatu zuen: hedabideaskotan haien buruaz beste egiten duen jendearen albisteak ez dira aipatzen. Kazetaritza prebentiboasustatu behar. Ardura itzela daukagu.

Kazetaritzaren lan prekarietatea ez du laguntzen askotan.

Ikastaroan kezka hori azaldu da: murrizketa handiak egin dira eta horren biktima, besteak beste, kazetari adituak izan dira: beste arlo batzuetan egiten den bezala, indarkeria matxisten kasuak kazetari berezietuek tratatu beharko lituzkete.

Lanean hasi nintzenean “zientzia eta Unibertsitate” sailean idazten hasi nintzen. Gaur egun ez da existitzen. Beste arazo batzuk ere baditugu, lan egiteko erritmo zoroa, sare sozialen bizitasuna...

Agurrak, diosalak eta olesak (7)

Azkenekoan goraintzi igorri nien Ultzama aldeko adiskide guztiei. Goraintzi! Gipuzkoa aldean berriz, eskumuinak erabiltzen dute gauza bera esateko. Bitxia hitzak gordean bezala duen esanahia: Eskuan musuak, muinak. Goraintzi kontuei amaiera eman eta, gaurkoan, diosalekin ere bukatu nahi nuke, oraingoz bederen.



Joseba Magali bere amarekin Treintaten. Aurten ezagutu nuen Treintate bidean. Mutiko honek agurtzen ezeze, adinekoei erantzuten ere badaki. Xaloa eta ongi hezitako mutikoa.

Urtebetetzeko for mula oraindik ez dugu hona ekarri. Urtebetetzean zer erran behar zaio urte bat gehiago betetzen duenari? Ba, *Zorionak, urtez askoz! Zorionak anitz urtez!* Eta erantzuna, *Eskerrik asko. Esker aunitz, esker mila, Milesker.* Nahi duzuen moduan.

Eta bukatzeko zer deritzozue “urtebetetzea” esateko edo “nire urtebetzea” esan ordez, gaztetxoan asmakario zorigaitzeko horri? Gaur “nire zorionak” dira eta gisakoez? Zorionez, “nire zorionak” bezalako izurrite hori bukatuxe dirudi!

Ardoa askotan aipatu dugu hemen. Jate kontua gutxi. Ongi jateak merezi du bada, eta ostatu on batean adiskide onekin gehiago. Jatetxe batera bazoaz, honelakoak erabiltzen ditugu: *Bada apetitu? Bada apetitu? On deizula, On deizuela. On deikela. On egin.*

Eskerrik asko, erantzuna izanen da.


Bazkaria bukatutakoan entzun duzu inoiz honako hau?

Egin dugu bazkari

Eskerrak Jainkoari!

HIZTEGIA:

DIOSALA: saludo



Eta gaurkoari azkeneko kontu pare bat:

Nik zulotik behera botako nituzke honako formula hauek: *Igualmente! Hasta gero! Berdin!...*

Eta beste asko ere ez zaizkit batere gustatzen: *Kaixo! Eguerdion!...*

Agurtzeko inportantzia aipatu dugu behin baino gehiagotan. Eta honekin lotua dator bigarren kontua. Hau aipatu gabe ezin utzi! Gaurko umeek agurtzen ikasten al dute? Erakusten al zaie? Lehengoek bai, eta erakusteko lana edozeinek hartzen zuen gainera: Egun batean, Benito Nuin, Muskizko *Joanesenean* bizi zena, *Santone* ondotik pasatzen omen zen eta maistartokian, atarian, Miguel Arbilla omen zegoen, *Trote*, izengoiti zuena. Arbillatarrak jende pobrea baino alegreak omen ziren.

Hala, pasatzerakoan Benito gelditu hizketan eta horrela izan zen hauen artekoa:

-Eunon! –Benitok.

-Hori esate'skio, deus esaten ez'bauk'e berdin duk –Trotek.

-Nola esaten da ba?

-Hik ba'kik nola esaten den!

-Esan bia'izut ordun. Jainkoak dizula egun on!

-Hoi duk esatea!

Agurrei nolako inportantzia ematen zioten hemen da ageri, garbi-garbi.

Benito 1932. urtean jaioa zen, beraz, 1940tik gorakoa behar du izan kontu hau. Mutiko koxkorra izanen zen behinik behin (beñepin)

Gaurko umeek agurrik ez egiteaz gain, egiten zaien galderei ere, askotan, ez dute erantzun ere egiten, sarnadun eskale batzuk bagina bezala. Ez agur eta magur, mutu, tximuak bezala. Herri gutzietako izurritea ote? Gurasoek ez ote diete erakusten galdetzen duenari erantzun behar zaiola? Gure denboran bekatu larria zen hori: *Hi, norbaitek zerbait galdetzen badik erantzun zaiok!* Eta belarrondoko bat, behar bezala, gizatasunekin portatzen ez baginen.

Besterik gabe, irakurle maitea, agur bihotz bihotzetik nire zera atrebitu hauek irakurri dituzulako. Denak ez ziren huts eginak izanen eta seguru naiz agurren bat gustatu eta ikasiko zenuela. Zuen osagarri! Eta eutsi gure hizkuntzari eta ohitura zahar onei. Onak har eta txarrak bota sutara!

IZURRITE: peste

GIZATASUN: errespetua.

Euskara hutsezko hedabideen balio soziala eta estrategikotasuna aitortzeko eskaera

Euskarazko tokiko hedabideak biltzen dituen Tokikom elkarteak Nafarroako Gobernuari eskatu dio: euskara hutsezko hedabideendako diru-laguntza deialdi propioa egitea eta hurrengo deialdiak sektorearekin egiaztatuak izateko.

Nafarroako euskarazko hedabideek Nafarroako Gobernutik diru-laguntza jaso zuten azken urtea 2010a izan zen. Bost urtetan diru-laguntzak desagertuta egon dira. Hamarkada erdi horretan makina bat zulo estali beharrean dauden toki-erakundeen aurrekontuak izoztuta egon dira. Haiek izan dira euskarazko hedabideen sustengua Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailarekin batera. Baina azken horrek aurten iturria moztu du, Nafarroako Gobernuak diru-laguntza deialdia egin duelako.

Azken hori albiste pozgarria da Nafarroako euskarazko hedabideendako, baina... Baina 24 urtez Eusko Jaurlaritzaren babesa jaso ondoren, trantsizio tarterik gabe diru-laguntza mozteak, babes hori gabe umezurtz sentazioa utzi du Nafarroako euskarazko hedabideetan. Urte askotan Eusko Jaurlaritza izan da Nafarroako euskarazko hedabideen sostengarria, urtez urte Nafarroako Gobernuak berak baino diru gehiago inbertitu du sektorean. Baina 2010etik 2015era Nafarroako euskara hutsezko hedabideek jaso dituzten laguntzetan “ikaragarritzko beherakada” egon da: %54. Ondorioz, lan sozial garrantzitsua egiten duten hedabide askoren ekonomia egoera sostengaezina bihurtu eta asko desagertu dira, batez ere prentsa arloan.

Diru laguntzen deialdiaz

Nafarroako Gobernuak euskara erabiltzen duten hedabideetara zuzendutako diru-laguntza deialdia egin du aurten. Deialdiak, baina, ez dio gehiegi laguntzen Nafarroako euskarazko hedabideen jarduna bermatzeari. Zergatik? Tokikom elkarteko aldizkariak %15 gutxiago jasoko dutelako (2015ean 141.262 eta 2016an 120.000 euro). Eta, gainera, joan den urteko deialdia lekurik ez zuten zenbait hedabide gehituko zaizkio. Irratien poltsa, gutxi gorabehera mantendu egingen da, baina 2011tik 2015era Tokikomeko irratiek jasotakoa %30 jaitsi da. Azkenik, agerkari digitalen kasuan %21eko beherakada dago. Joan den urtean Tokikom-eko kideek 18.095 euro jaso zituzten. Aurtengo poltsa 15.000 eurokoa da, baina deialdian euskara erabiltzen duten hedabide guztiak aurkeztu daitezke. Beraz, Tokikom-eko kideek jasotako diru kopuruak nabarmen egingen du behera, aldaketarekin okerrago geldituko dira.

Ibilbidea

Gaur egun Nafarroan lanean ari diren euskarazko

hedabide gehienak 90ko hamarkadan sortu ziren. Orditik Nafarroan euskararen normalizaziorako tresna garrantzitsua bihurtu dira, tokian tokiko etxeetara sartuz. Etxe askotan, gainera, ez da bestelako euskarazko hedabiderik sartzen.

Euskara hutsezko komunikabideek egin duten lana balioan jartzeko beharra ikusten dugu. Horregatik, interesgarria iruditzen zaigu Euskal Autonomia Erkidegoan Mondragon Unibertsitateko ikerlari talde batek aurten aurkeztu berri duen ikerketaren bidean sakontzea. Ikerketa horren bitartez, datuekin azaldu dute ikerlariak, euskarazko hedabideak aberastasun sortzaile nabarmenak direla eta diruz lagundutako euro bakoitzeko 9,2 euroko ekarpena egiten diotela hedabideek gizarteari.

TOKIKOM



Gureak dira oihanak (2)



Herri batean ikusitakoa lantegia (Porrokaturik utzi zuten dena)

Oihanei buruz azkeneko zenbakian aipatzen genuen nola Orokieta eta Erbitiko kontzejuan baduten Batzorde berezi bat horretarako. Batzorde horretarako buruari, Santiagori, galdetu genion lantegi bat saltzen dutenean nola gestionatu edo kudeatzen duten:

“Oihana ateratzen hasi aurretik edo, joaten gaituk batzordekook ikustera; batzuetan, dena ikustera, zer dagoen markatua eta zer ez.

Gero, lanean ari direnean ere, igande batez edo, nola ari diren lanean ikusten diagu. Eta pistaren bat ireki behar badu kontratistak, oihanzainarekin batera ikusten diagu zer zailtasun duen, nondik beharko lukeen...Beti jakinen gainean egoten gaituk”.

Askotan ibili beharra?

Segun nolako lantegia den, nor den...nola ari den... batzuetan gutxiago eta bertze batzuetan gehiago. Batzuetan lasago, bertze batzuetan zorrotzago.

Gertatzen diren abusuaz galdetu eta lehengo kontuak, kontu zaharrak dakarzkigu Santiagok, oihanean aritutakoa baitugu.

Orain ez duk horrelakorik gertatzen. Gainera bada-kik, markatu gabe 50 euroko arbola botaz gero, 150 euro pagatu behar ditek, hiru aldiz gehiago. Ez, orain klase horretako abusurik ez duk ia izaten.

Baina, bertze klaseko batzuk izanen dituk, arbola trollekin arrastan atera bere adarrekin, adibidez, bidean harrapatzen dituen arbolei azala kenduz, esaterako.

Bai, horiek denak kontutan izaten ditiagu eta ez diagu uzten horrelakorik. Arbola bota eta 9 metro luzeran edo moztu, adarrak kendu eta, tiratu behar ditek. Bueno, hori ez duk hain segurua, segun zer toki den,

HIZTEGIA

LANTEGIA: BOTATZEKO ARBOLAK MARKATZEN DEN TOKIA

nolako arbola den...ikusi beharra zegok.

Arrastan ateratzerakoan bertze arbolei azala kentzen bazaie, kalte handia izaten ditek.

Bai, hala duk. Gero segun zein aro edo garaietan izaten den, azala oso erraz harrotzen zaiek. Izerdi denboran, hau duk, udaberrian eta udan, abuztua baino lehenago baldin bada, oso-oso erraz harrotzen zaiek.

Gero bertze abusu bat pistetakoa duk. Pistetan arbola-zarakak lorrean ibili eta...

Guk, pista jeneraletan arrastan ibiltzea ez diagu uzten. Lantegia ateratzen delarik, batzuetan, bazterretara pista motz batzuk egin beharra izaten duk, baina, ez, ez, pista jeneraletan ez ditek hainbertzeko kalterik egiten. Gero, pistako zenbait tokitan arbola adar batzuk jarrarazi kalteak saihesteko...

Gero lantegia ateratakoan, zer egiten duzue?

Lanak bukatu ondoren, joaten gaituk monteroak eta gu hirurok begirada bat ematera lantegi guztiari. Eta gero kontratistari, pista koskorren bat berdindu arazi, urak kentzeko moztu arazi han eta hemen...

Arbolaren kalteak eta, ez dira oso merke tasatzen?

Ba, hori, kalteak, ezinbertzekoak izaten direnean kontutan hartzen dituk. Bertzela ongi tasatzen dituk. Baina egia erran behar badiat, ez diat uste kalte asko egiten denik, hori bai, kontratista txukuna denean.

TROLL: MAKINA KABLE DUNA, KABLEA LOTU BOTA-TAKO ARBOLARI ETA ARBOLA ARRASTAN ATERATZEN DU, GEHIENETAN GORA, ZOKOETATIK. IZERDIA: SAVIA.

“Hizkuntza herri baten biziraupenari guztiz lotua dago”



Ali Cam kazetari eta errefuxiatu politiko kurdua Imotz eta Basaburuan izan dugu ekainean. Aizarozko Gato eta Mikaela internazionalistek ekarrita, bizpahiru egunez egon da gurean. Jauntsarasko ikastetxean egonaldi polita izan zuen ikasleekin, Erasoko Zaparen etxolan dokumental emanaldia eta Aizarotzen txupinazoa botatzeko aukera izan zuen. Benetan omenaldi ederra!

Berarekin Tina eta Christina austriarrak etorri ziren, lehenengoa Kurdistanen inguruko dokumentalaren egilea, eta bigarrena itzultzailea. Gustura ibili ziren hirurak gurean. Ali Camekin elkarrizketa egiteko aukera izan genuen guk.

Kurdistango zara, baina aspaldi da Austrian bizi zarela, zaila al da jaioterrira itzuli ahal ez izatea?

Bai, oso gogorra. Duela 20 urte atera behar izan nintzen nire herritik Turkiar estatuaren errepre-sioaren eraginez. Ezin naiz nire jaioterrira bueltatu, hil egingo nindukete. Horregatik Austriatik egiten diot nire ekarpena Kurdistango askapen prozesuari. Herriz herri elkartasun bila aritzen naiz, ezinbestekoa dugulako elkartasuna, eta herri borrokariaren aldetik etortzen bada, askoz hobe.

Ez du ematen bakea gertu duzuenik, Siria aldean gerra, Turkia aldean gerra...

Ez, gerra luzera doa. Komunikabideak Siriako gerran jarri dute fokoa, baina Turkiarekin gerra gogorra bizitzen ari gara. Diyarbakir hiriburuko (Turkiaren menpeko Kurdistanen) argazkirik ez zenuten ikusiko seguruena, baina guztiz suntsituta dago. Hala ere erresistentziaz gain, parekidetasunean eta justizia sozialean oinarritutako sistema bat erakitzen ari gara Sirian, PKKren (Kurdistango Langileen Alderdia) Konfederalismo Demokratikoaren ideologiarekin. Momentu interesgarria da.

Zu kazetaria zara, errepresioak jotakoa. Zein da kurduerazko komunikabideen egoera?

Irratiak, telebistak, egunkariak, aldizkariak eta denetik daukagu, denak legez kanpokoak. Ez dakit jada zenbat izen izan dituen kurduerazko telebistak. Turkiak hamaika alditan itxi digu telebista, baina erasoan gainera kurduerazko komunikabideak izatea lortu dugu. Ez dugu adierazpen askatasunik Turkian, eta kazetari asko atxilotu eta hil dituzte. Zigorrik leunena deserria da, nire kasua alegia.

Basaburuko haurrek hizkuntza kurduaz galdetu dizute, zein da egoera?

Kurdistanen ez gara soilik kurduak bizi: asiriarrak, persiarrak, turkomanoak, kristauak... bizi gara, eta bakoitzak bere hizkuntza dauka. Kurduera ez da hizkuntza bakarrik gainera, oso aldaera ezberdinak ditu. Alfabetoak ere ezberdinak dira, Ipar Kurdistanen alfabeto latindarra darabilgu, baina Hego Kurdistanen alfabeto arabiarra. Dena den kurduera estandarra ere badugu, Euskal Herrian bezala.

Eta kurduak erabiltzen al dute kurduera?

Bai, herri kontzientzia eta ondorioz hizkuntzarekiko kontzientzia oso indartsua da kurduen artean. Badakit hainbat lekutan hizkuntza despolitizatze saiakerak daudela, baina hori estatu inperialisten estrategia da. Hizkuntza herri baten biziraupenari guztiz lotua dago, herri bat ezin daiteke izan hizkuntza gabe, eta hizkuntzak ezin du biziraun estatuturik gabe. Lotura hori ezinbestekoa da Kurdistanen gure hizkuntzaren biziraupenerako, eta beraz, kurduar herriaren biziraupenerako.

Euskal Herria ez zenuen ezagutzen orain arte, zer aurkitu duzu?

Ez nintzen inoiz Euskal Herrian egona, ez; baina asko irakurri dugu herri honen borrokaren inguruan, erreferente ere izan da hainbat aspektutan. Hasteko, lurralde ederra aurkitu dut, eta bigarrenik, zutik dagoen herri bat. Ez da hona etorriko naizen azken aldia izango, hala ere espero dut Kurdistanera lehenago itzultzea, gure herria askatzen dugunean. Hori lortzean ni bakarrik ez, hamarnaka lagun etorriko gara Euskal Herriari elkartasuna adieraztera.

Barraskilo proiektua

Honela deituko da Ultzamako Baserri Eskolak martxan jarriko duen proiektua. Barraskiloa, “slowfood” edo janari mantsoaren (janari azkarraren aurkako mugimendua) sinboloa da, eta baita Baserri Eskolak izanen duen eraikinen planoaren itxura.



Hala da, bai, Ultzamako Baserri Eskolak eraikin multzo berri bat egingen du laster. Gainera, ez da edonolakoa, multzoak izanen dituen lau eraikinak barraskiloaren antena (2 eraikin), eskola eta buztana irudikatuko dute, eta barraskiloaren gorputza eraikinak lotzen dituen bidea.

Badu bere zergatia, izan ere “slowfood” jate-txea jarriko dute bertan, hau da, lasai eta maitasunez egindako janaria emanen duten lekua, dena bertako produktuekin eginga. Janari azkarraren aurkako mundu mailako mugimendua da “slowfood”, eta Lizason horren adibide praktiko bat izanen dugu. Bertan desgaitasun fisiko zein mentala duten pertsonak egingen dute lan.

Zaku-lasterketa “Guinness” errekorra, irailean Maiatzean egitekoak ziren zaku lasterketaren Guinness errekor saiakera berria irailera atzeratzeko erabakia hartu dute. Eguraldi kaxkarra izan da horren errudun, jakina baita zaila dela 2.096 pertsona eramatea euria egiten duenean. Beraz, irailean saiakera berria izanen dugu, ea oraingoan lortzen den.

Beatriz Otxotorena, Nafarroako gazte enpresariaren sarirako aukeratua

Lizasoko Baserri Eskolako kidea hautatua izan da Nafarroako Gazte Enpresariaren sarirako. Gizarte ekimenen atalean izan da hautatua beste bi nafarrekin batera. Bozketa batekin hautatuko da irabazlea. Ikusiko da Beatriz ateratzen den aukeratua.





Irakurri, gozatu eta oparitu

Aurtengo kanpaina bukatu da. Aukera paregabea izan dute irakurleek, apirila eta maiatzean, gustuko duten ekintza eginez liburuak merkeago erosteko eta, nahi izanez gero, oparitzeko. Egitasmo honen helburua da euskarazko irakurzaletasuna zabaltzea, euskararen erabilera sustatzea eta euskarazko literaturaren kontsumoa handitzea.



Laraintzarko liburutegian euskarazko liburuak hartzera joan diren guztiei txeki bana eman zaie euskarazko liburuak %35 merkeago erosteko, eta, horretaz gain, apirilean eta maiatzean %30 euroko bi txeki zozketatu dira euskarazko liburuak erosteko. Pozik jaso zuten saria Oihana Rezabalek apirilean eta Edurne Etxeberriak maiatzeko zozketan.

Eta pozik jaso ditugu guk egitasmoaren emaitzak, aurtan nabarmen igo baita maileguen kopurua oro har, baita euskarazko maileguen kopurua ere. Bi adin tarte bereiziz hartu ditugu datuak, batetik

haurrak (12 urte artekoak) eta, bestetik, gazte eta helduak (12 urtetik gorakoak). Orokorrean, hurrek 224 liburu hartu dituzte maileguan, apiril eta maiatzetan; gazte eta helduek, berriz, 74 liburu.

Euskarazko liburuaren maileguei dagokienaz, egitasmoak iraun duen bitartean, hurrek 171 liburu hartu dituzte euskaraz, iazko kanpainan baino 138 gehiago; gazte eta helduek 9, iaz baino 6 gehiago. Guztira, 38 txeki banatu dira euskarazko liburuak mailegatu dituztenen artean. Datu pozgarriak ditugu, beraz, eta heldu den urtean egitasmoa errepikatzeko modukoak.

Potsdamgo zubia, udarako proposamena



Udako hilabeteak oso aproposak izan ohi dira irakurketarako. Horrexegatik, gaur nobela interesgarri bat proposatzen dizugu; misterioa, nobela beltza, patxadaz irakurtzen diren horietakoa. Atezko Arostegin bizi den Ignacio Lloret liburu berria aurkeztu du "Potsdamgo zubia" (*El puente de Potsdam*), baina hori ez da guztia, hamaika gauza desberdinetan sartua dabil.

Hasteko *Diario de Navarra* egunkariaren sareko atarian "Estación de libros" deitutako bloga ireki du. Bestetik, blog horrekin zerikusia duen liburuak bukatu berri du, eta errefuxiatuen egoerari buruzko eleberri bat idazten ari da eta bukatzeko, gutxi iruditzen bazaizu, soinu bidezko ipuin sail bat prestatzen ari ditu. Hau marka!

Liburuaren laburpena

Alemanian Errepublikak Demokratikoko Anton Grund idazlea, 1977an, Ekialdeko Berlingo Hohenschönhausengo kartzelan dago preso, epaiketaren zain. Bitartean, Segurtasunerako Estatu Ministerioa, Stasi delakoa, galdeketa egiten ari zaio Wolf Biermann kantautorearen erbesteratzearen kontra mobilizatu diren intelektualen sarea desegiteko asmoarekin.

1999ko maiatzean, Berlingo egunkari nagusietako bat den Berliner Morgenpost egunkariak bere erreportari Alex Renft bidali du antzinako Alemanian Errepublikak Demokratikoko Anton Grund idazlearen lurperatzearen albistea jasotzera. Grund eritasun batek jota hil zen, eta hortik aurrera Renft idazlearen bizitza berreraikitzen saiatuko da.



Kirolak

Maila goreneko sega Imotzen

Ekainaren 25ean, larunbatean, Euskal Herriko sega txapelketa jokatu zuten Etxaleku eta Ihaben arteko zelai batean. Jende anitz bertaratu zen lehia ikustera, zonaldekoak eta Euskal Herriko hainbat lekutatik etorritakoak. Iaz Basaburuan izan zen jardunaldia, aurtan Imotza egin du lekualdaketa, eta heldu den urtean Basaburura itzuliko da.

Haurrak eta helduak aritu ziren. Haurren artean Jokin Mikeo beruetearra izan zen beste 15 gaztetxorekin batera aritu zena. Lehian ez, baina erakusketan aritu ziren gero Basaburuko Martin Etxarri eta June Mikeo ere. Maila ederra erakutsi zuten hirurek.

Helduen lehian, Euskal Herriko 19 segalari aritu ziren. Tartean Itsasoko Javier Auza, Arrarasko Mikel Berekoetxea eta Etxalekuko Martin Aldaregia. Oso lehia polita izan zen, hiruak aritu ziren segalariak, eta txalo zaparrada banarekin agurtu zituzten guztiak.

Anuen aldiz korrika

Parte-hartze txikiarekin, baina giro ezin hobean igaro zen Anueko krossaren zortzigarren ekitaldia. Nafarroa osoa lasterketaz betetzen da uda gerturatu ahala, eta ekainaren 11ko asteburu horretan Lakuntzan, Larrasgoitin, Ollon, Izaban... lasterketak zeuden, eta beraz, lasterkariak banatu egin ziren.

Dena den, eguraldi ona izan zuten Olagueko plazatik abiatu ziren 32 korrikalariak, antolatzaileek lan bikaina egin zuten gainera, eta ederki atera zen guztia. Lasterketa ondoren luntxa ere izan zen eta ikusle ugari korrikaldia girotu zuten. Animatuenak Olaguen zegoen bazkaria geratu ziren, mariatxiak eta guzti.

Emaitzei erreparatuta, Alba Curras izan zen irabazle emakumeen lasterketan, neska gaztea eta etorkizun polita daukana. Bigarren Mariam Lucera izan zen, eta Silvia Villanueva hirugarren. Gizonetan Aitor Seminario izan zen, Asier Mesanza bigarren eta Francisco Sanz hirugarren. Dabid Egozkue Anueko korrikalari trebeak min hartu zuen hirugarren kilometroan, eta ezin izan zuen lasterketa bukatu.

Odietarrak bikain Agoitzen

Odietarrak ez dira bertan geratzekoak, eta leku batetik bestera ibiltzen dira korrika. Oraingoan Agoizko mendi lasterketako lehenengo ekitaldian parte hartu zuten Erripako Letizia Altuna Kueli eta Ziaurizko Saioa Muñoz Vizcay korrikalariak.

Parte hartu bakarrik ez, Letiziak distantzia laburreko lasterketa (13km) irabazi egin baitzuen. Lasterketa polita eta gogorra, Agoitz inguruko mendietan zehar, eta Letiziak bere kirol maila eta trebetasuna erakutsi zuen helmugara lehena iritsiz. Saioa ere ederki atera zen, baina dena esan beharra dagoenez, lasterketa beharazko bidean hasi zenean, Pulunpeko kazetari batek aurre hartu eta Saioa baino lehen iritsi zen helmugara.

ZORIONAK BIKOTE ETA GORA PULUNPEKO KIROLARIAK!





2016eko MAIATZA

Gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

BASABURUA

UDABE

Euri Aldekoka Korres, Iñaki eta Nahiaren semea, 2016ko maiatzaren 3an jaioa Udabeko erroten.

ULTZAMA

AUZA

Elene Urrotz Begino, Daniel eta Edurneren alaba, 2016ko maiatzaren 1ean jaioa.

Ekontzak

ANUE

BURUTAIN

David Almazan Prieto, eta Aurora Puigdomenech Capdevila, Burutaingo Aramenekoak. Ezkontza: 2016ko maiatzaren 12an.

OLAGUE

Miguel Angel Larraiotz Bedan, Olagueko Larraiotzen etxekoa, eta Maria Victoria Macias Zia, Barzelonakoa. Ezkontza: 2016ko maiatzaren 14an.

ULTZAMA

LIZASO

Alberto Arriada Elizalde, eta Itziar Gurutxarri Lizantzu, Lizason bizi direnak.

Ezkontza: 2016ko maiatzaren 5ean.

tikoneko semea eta Auzan bizi zena. Romero Aizpuruaren senarra.

Heriotzak

ANUE

ETSAIN

Juan Zandio Jauntsarats, 2016ko maiatzaren 8an hil zen, Palazioko nagusia.

IMOTZ

ERASO

Teresita Erauskin Aranburu, 2016ko maiatzaren 5ean hil zen. Apezetxea. Basaburuko erizain jubilatu berria.

LANTZ

Reyes Olague Ollobarren, 2016ko maiatzaren 28an hil zen. Ahuntzengan jaioa.



Euri eta gurasoak



Aitak Elene aurkezten digu



David eta Aurora



Miguel eta Victoria



Teresita




Juan



Buru-hezur tximeletaren misterioa

Afrikatik Basabururaino urtero etortzen da tximeleta hau, buru-hezur bat atzealdean marraztuta duela. Beramendiko etxe batean urtez urte ikusi izan dute, eta jakina, lehen aldiz ikustean izua sortzen du. Ordutik ia urtero udaberriko egunik beroenetan agertzen da bertan.



Izua eragiten du, lehen begiratuan imajinatuko ez zenukeen zerbait baitauka:

Izugarri handia da: Beldarrak 9-12 cm-ko luzera dauka, eta tximeleta jaiotzen denean tamaina hori izaten du. Gero esku baten tamaina ere hartzen du. Aurrekoan Etsainen agertutako beste tximeleta handi batez aritu ginen, antzekoak dira tamainaz.

Buru-hezur baten itxurako marrazkia dauka: Hasiera batean izua eragiten duena bere tamaina da, baina behin gerturatuta, atzealdean duen buru-hezur itxurako marka ikusten badugu are gehiago izutuko gara. Bakarra da munduan, eta Afrikako herri kulturen marka horregatik izu handia diote.

Oihu egiten du: Amaitzeko, ez bagara gehiegi izutu eta etxetik kanporatu nahi badugu, oihuka hasiko da! Bai, tximeleta bat oihuka! Erasotua sentitzen denean edo enbarazu egina, oihuka hasten da, defentsa mekanismo bezala.

Tximeleta hau, *Acherontia atropos*, Afrika tropikalekoa da berez, baina noizbehinka migratu egiten du eta Europa osotik hedatzen da.

Beramendin diotenez, udaberri edo udazkeneko egun beroenetan agertzen da. Iaz, esaterako, ez zen agertu, udaberri nahiko hotza egin zuelako, eta nahiz eta uda beroa izan, ez zen agertu. Baina udaberria beroa denean, urtero-urtero egiten du bisita Beramendiko etxe honetara.

Baliteke eztiaren usainak erakartzea. Etxe honetan erlauntza daukatelako teilatu azpian, eta tximeleta usain horrek erakarrita hurbil daitekeela diote.

Atropos izenak berak heriotzarekin harremana du. Greziar mitologian, bizitzaren haria moztzen duten "Moirak" delakoei dagokie. Edgar Allan Poe poetak "The Sphinx" ipuinean erreferentzia egiten dio tximeleta honi. Baina ezagunago egin zen "El silencio de los corderos" filmean agertu zenean.

Afrikar kulturen Buru-hezur tximeleta agertzeak zor-te txarra ekartzen du, eta agertzen zaionari zoritxarra eta ezbeharrak sortzen dizkiola diote. Gurean ezer larri-rik ez, eta ez dakigu tximeleta agertzearen ondorio den, baina gertatu izan dira hainbat ezbehar.

ZORIONAK ZUEI!



Arturo



Garazi



Ana eta Amina



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 - 722 766 835

Lizaso

karikolaregoitz@gmail.com

- Instalaciones Solares Térmicas
- Instalaciones Solares Fotovoltaicas
- Calderas y Estufas de Biomasa
- Ahorro y Eficiencia Energética



- Eguzki-instalazio termikoak
- Eguzki-instalazio fotoboltaikoak
- Biomasa galdarak, berogailuak eta lurreko suak
- Aurrezki eta eraginkortasun energetikoa

685 907 634 - 685 907 635 | tedsna@tedesna.com | www.tedesna.com



DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL: 678 623866

argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizleak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

Sateliteari esker, internetera
konektatu zaitez



Senatel

Telecomunicaciones
848 410 500
Sta. Vicenta María 14 31012
IRUÑEA
info@senatel.es



JOSEMI



AMAYA



NEKANE



JOER



IONE

BAGOAZI!

TRAILERARTE!

